

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**19/2017 Foru Agindua, urtarrilaren 30ekoa, Laminoria Aurrealdeko lurzoru urbanizaezinaren Antolamendu Plan Bereziaren espedientea zenbait baldintzarekin behin betiko onartzen duena, Arraia-Maeztuko udalerrian**

#### AURREKARIAK

Lehenengoa. Arraia-Maeztuko Udalak 2015eko uztailaren 24ko bilkuran erabaki zuen Laminoria Aurrealdeko lurzoru urbanizaezinaren Antolamendu Plan Bereziari hasierako onarpena ematea, baita espedientea 20 egun baliodunetz jendaurrean jartzea ere; hala egin zuen, 2015eko irailaren 8ko 107. zenbakidun ALHAOn eta 2015eko irailaren 11n Diario de Noticias de Álava egunkarian argitaratuz.

Bigarrena. Jendaurrean egon zen bitartean ez zen alegaziorik aurkeztu. Beraz, 2015eko abenduaren 2ko bilkura arruntean, Udalak behin behineko onarpena eman zion espedienteari.

Hirugarrena. Ingurumen Ebaluazioari buruzko 21/2013 Legean definitutako prozedurari jarraituz, AFAko Ingurumen eta Biodibertsitate Zerbitzu aurrean Ingurumen Ebaluazio Estrategiko Sinplifikatuko espedientea izapidetu zen; hala, 2015eko ekainaren 29an, 292 Foru Agindua eman zen; horren bitartez, Arabako Esther (1. zatikia) ustiapen emakidaren eremuaren barruan, Laminoria Aurrealdearen Plan Bereziaren ingurumeneko txosten estrategikoaren aldeko txostena egin zen.

Laugarrena. Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeak, Arabako Hirigintza Planeamenduko Atalaren martxoaren 16ko 1/2016 bilkuran, espedientearen aldeko txostena eman zuen.

Bosgarrena. Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean 2016ko apirilaren 11ko sarrera data duen idazki baten bidez, Arraia-Maeztuko Udalak espedientea bidali zuen behin betiko onar zedin.

Seigarrena. Hala ere, administrazio espedientea ez zegoenez osatuta, udalari eskaera egin zion Foru Aldundiak, 2016ko maiatzaren 10ean igorri zen idatzi baten bitartez administrazio hidrauliko eskumendunak emandako kasuan kasuko txostena aurkez zezan (kasu honetan, Ebroko Konfederazio Hidrografikoa, URA Uraren Euskal Agentziaren bitartez eskatutakoa).

Zazpigarrena. Erregistro Nagusian 2017ko urtarrilaren 2ko sarrera data jaso zuen idatziaren bitartez, eskatutako dokumentazioa aurkeztu zen, aurreko atalean aipatutako idatziari erantzuna emanaz.

#### OINARRIAK

Lehenengoa. Esther (1. zatikia) ustiapen emakidaren eremuaren barruan, Laminoria Aurrealdearen Plan Bereziaren helburu nagusia, sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioan ageri den moduan, "Laminoriako harrobien antolamendua idaztea da, Arraia-Maeztuko udal plangintzarako arau subsidiarioetan ezarritako hirigintzako helburuari jarraituz, harrobien ustiapenak ez duela goragoko lerruneko araudiren baten aurka egiten justifikatzeaz gain".

Bigarrena. Txostenaren xede den plan berezian zedarritutako eremuko lurzorua urbanizaezin gisa sailkatuta dago, "8. aldea. Harrobiak" eremuaren barruan, arau subsidiarioetan egindako aldaketa puntual baten ondorioz (azaroaren 2ko 130/2011 Foru Aginduaren bitartez behin betiko onetsitakoa; 2012ko abenduaren 28an 150. ALHAOn argitaratzearekin batera sartu zena indarrean); txostenean aztertutako dokumentu teknikoan planteatutako helburuak posible egin eta estaltzeko ex profeso egin zen.

Plan berezi honetan harrobiak har ditzakeen Z-8 eremuak 314,89 ha-ko azalera du, eta eremu horren mugak aipatutako arauak aldatu ondoren zehaztu dira. Laminoria mendilerroan dago kokatuta (750 eta 1000 metro arteko altueran), Arraia-Maeztu udalerriaren iparraldean, Entzia mendilerroaren (ekialdea), Gasteizko Mendi Garaien (iparralde) eta Gasteizko ekialdeko mendien (mendebaldea) artean; azken horien barruan dago kokatuta.

Laminoriako ustiapenean kokatutako ur eta ubideak Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren kontrolpean daude, eta Goi Berronaren ibilguaren parte dira. Harrobiaren ingurua zeharkatzen duen ur ibilgu nagusia Berron ibaiari dagokio; ibilgu hori Egara iristen da, eta hori, halaber, Ebro ibaira.

Harrobira iristeko sarbidea Uribarri-Jauregitik egiten da (iparralde), edo A-4144 errepidearen bitartez, Maeztutik sartuz gero (hegoaldea).

Hirugarrena. Arraia-Maeztuko Udal Hirigintza Planeamenduari, lurralde antolamenduari zein hirigintza legedi aplikagarriari jarraituz dokumentua aztertu ondoren, zuzendu beharreko zenbait alderdi daudela ikusi da; zuzendu beharreko alderdi horiek hurrengo ataletan zehaztu dira, eta horietako batzuk dagoeneko agertu ziren Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren Zuzendaritzak emandako txosten proposamenean:

A. Txostenean hizpide daukagun plan berezia lurralde antolamenduko tresnetara egokitzen ote den zehazteari dagokionez, eta arlo horren eskumena Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearena dela aintzat hartuta, Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko 4/1990 Legean zein Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 1. xedapen gehigarrian xedatu denez, batzorde horrek martxoaren 16ko 1/2016 saioan esandakoari erreparatuko zaio. Horri dagokionez, eta dokumentu teknikoan adierazitako antolamendu xehatua definituta gera dadin:

- Vasco-Navarro trenbide zaharraren trazadura jasoko da (aurretik existitzen zen Laminoriako tunelaren trazadura jasoz), Araba Erdialdeko Lurralde Plana Partzialaren AE-6 gisa.

- Babes arkeologikoko aldean eraginpean dauden azalerak, EAeko Ibai eta Erreka Ertzen Arloko Lurralde Planeko ur bideak eta Hezeguneeen Arloko Lurralde Planean jasotako meatzaritzako baltsak (III. EA2 taldea) jasoko dira.

B. Plan bereziaren dokumentu teknikoa:

1. Dokumentu teknikoko "3. Hirigintza informazioa" ataleko 3.1 eta 3.3 puntuetan ageri den zuzentasunik eza zuzendu egingo da; izan ere, plan berezi honen eremuko perimetroko lurra baso babeseko zona gisa kategorizatuta daudela ageri da, baina indarrean dagoen udal planeamenduak honako zonifikazio hauek ezarri ditu: Babes Bereziko Zona (Z.9), Mendi Barbana Babes Zona (Z.3), eta Mendi Larreko Babes Zona (Z.4).

2. Eremuaren azalera zuzenduko da, eta plan berezi honen harrobiak har ditzakeen "Harrobiak" Z-8 alde osora egokitu beharko da (314,89 ha), ez soilik arau subsidiarioen aldaketa puntualen ondorengo Z.8 alde handitura (130/2011 Foru Agindu bidez behin betiko onartutakoa).

3. Arabako Foru Aldundiak baimentzeko beharrezko dokumentuetatik, "8. aldea. Harrobiak" eremuan baimendutako jarduera eta erabilerei dagokienez (arau subsidiarioen 201. artikuluan), honako hau egin beharko da:

- Teknikari eskudunak idatzitako instalazio eta ustiapen proiektua eta ustiapenek kaltetutako espazio naturala lehengoratzeko plana aurkeztea (dokumentazio grafikoa baino ez da aurkeztu, O.2.1 eta O.2.2 planoak).

4. Arau subsidiarioetan definitutako hirigintza parametroak eta plan berezi honetarako kasuan kasukoak ezartzeko euskarria eskaintzen dutenak (ezarritako egitura antolamendurako xedapenak lotesleak dira) 202. artikuluan "landa eremuan kokatu beharreko interes sozialeko eta erabilera publikoko eraikinetarako" adierazitakoak dira; horrenbestez, 201. artikuluari eta adierazitako parametroei egindako erreferentzia okerra da, eta puntu honetan azaldutakora egokitu behar da (errepideetatik, landa bideetatik, ur masetatik eta ibilguetatik dauden tartek barne).

5. Gauzatzea kudeatu eta antolatzeko jarraibideen kasuan kasuko azterketa aurkeztu beharko da, eta jarraibideen xehetasunak plan berezi honen zehaztasunetara mugatuko dira; zehaztasun horiek ustiapen epeei eta eremua osatzen duten zenbait alde lehengoratzeari, eta gauzatzeke lehentasun ordenari dagozkie.

6. Bideragarritasun ekonomiko-finantzarioaren azterketari dagokionez, Hirigintza Planeamenduko Araudiaren 55. artikuluan xedatutakoari egokituko zaio (adibide gisa, plan berezi honen eremuko parte diren bide publikoen tarteak urbanizatzeko kostuak, horien urbanizazio lana konpontze aldera, eta ustiapenek kaltetutako espazio naturala lehengoratzeko planean ezarritako lanen kostua).

7. Ordenantzei dagokienez:

a) Plan berezi honen ordenantzek araudi izaera izango dute; horrenbestez, artikuluetan garatuko dira, eta memoriari dagokion ataletik argi eta garbi bereiziko dira.

b) Kasuan kasuko planoan maila grafikoan egin beharreko zonifikazio xehakatuaren ondorioz ezarritako eremu bakoitzean arau zehatzak finkatu beharko dira, aintzat hartuta plan berezi honetarako modu orokorrean definitutako hirigintza parametroak, ondoren adierazitako zuzenketekin:

- Okupazio eta eraikigarritasun parametroen artean sortutako inkoherentzia zuzendu egin behar da; hain zuzen ere, eraikigarritasunari dagokionez, solairu batean 314.890 m<sup>2</sup>-ko azalera eraiki handizkatua ahalbidetu da, eta 3.148,90 m<sup>2</sup>-ko gehieneko okupazioa mugatu du (314,89 ha-ren %0,1); okupazioari esleitutako parametroa da horrelako jardueren eraikuntza beharriari gehien egokitzen zaiena.

- Tratamendu eta ustiapenari lotutako instalazio eta erabileren artean, eraikin gisa zein ez den zenbatzen adieraziko da.

- Indarrean dauden arau subsidiarioen egiturako hirigintza antolamenduak ez ditu modu esplizituan definitzen "8. aldea. Harrobiak" eremuan aurreikusitako erabilera baimenduak; horrenbestez, ulertzen denez, Nekazaritzako eta Basozaintzako Arloko Lurralde Planaren 32. artikuluan definitutako erazte jardueri dagokiena baino ez da onartuko, inplizituki; beraz, plan berezi honen ordenantzetan parametro gisa integratu beharko dira.

- "Itxitura hesiak" ezartzea behar bezala justifikatuko da, babesten dituzten meatze eta mendien kasuan kasuko arloko araudietako artikulua aipatuz; bidenabar, horien ezaugarriak ere ezarriko dira (materialak, dimentsioak...).

- Plan berezi honen ordenantza arautzaileei honako paragrafo hau gehitzea, arau subsidiarioen 201. artikuluko "8. aldea. Harrobiak" ataletik ateratakoa:

"Ubideetan edo uholde kasuetarako aurrearreta izan behar den tokietan egiten diren idorki erazketa kasuetan neurri zehatzak ezarriko dira beheagoko kotan dauden pertsona, eraikin eta lurren arriskuak ekiditeko. Debeku da materialak pilatzea malda, troka edo ubideetan baldin eta uren igarotzea eragozten badute eta material eta gaiak arrastatzea eragiteko arriskurik badago."

- Plan berezi honi aplikatu beharreko erabilera eta eraikuntza jardueri eska dakizkieken beste baldintza batzuk jasoko dira (arau subsidiarioen 203. artikulua).

- Okupazio zein eraikigarritasun parametroak eremuaren azalerari dagokionez ulertuko dira, eta ez lurzatiari dagokionez.

- Hirigintza antolamendu xehakatuak zehaztu beharko ditu, gainera, eraikin eta eraikuntza alderdi definitzaileak, besteak beste: eraikuntza materialak eta horietan baimendutako koloreak, estalkiaren maldak, osaera bolumetrikoa, etab.

c) Plan bereziak bertan ezarritako zerbitzu sare guztien baldintza teknikoak zehaztuko ditu, dagoeneko gauzatutakoak zein aurreikusitakoak, Hirigintza Planeamenduko Araudiko 53. artikuluan xedatu bezala.

8. Planoei dagokienez:

a) Honako plano hauek aurkeztu beharko dira:

- Existitzen diren azpiegitura eta eraikina identifikatu eta kokatzen dituen plano bat; izan ere, eremuan hainbat birrintze eta sailkapen instalazio garrantzitsu daude, deskribatu edo identifikatu ez diren zenbait eraikin eta silo. Atal idatzian aipamen orokor bat baino ez da egin silizea eta kare-harria lantzeko instalazioak egoteari dagokionez; atal grafikoan "onura instalazio" gisa identifikatutako aldeetan elementu horiek sumatu egiten dira.

- Zonifikatze xehaketa ezarriko duen antolamendu plano bat, "kudeaketa planoan" adierazitako areak oinarri gisa hartuta; beste zona berri batzuk ere gehitu beharko dira: zona bat erauzte jarduerari lotutako erabilera osagarrietarako (eraikigarritasuna kontsumitzen dute); beste zona bat ur bide/masetarako (besteak beste, Musitu ibaiaren baltsak jasoko dira, Hezeguneen Arloko Lurralde Planak EA2 izenarekin identifikatutakoa), beste bat zona arkeologikoetarako eta presuntzioetarako, etab.

- Eraikinaren baldintzen plano bat (altuerak, mugimendu area, lurraldeko elementuen banaketa, etab.).

- Dagoeneko gauzatutako zein aurreikusitako zerbitzu sare guztiak ezarriko dituen plano bat, plan honen eremuaren parte den bide sarea barne, instalazio eta eraikinetara iristeko sarbideena (izaera publikoa edo pribatua duen adieraziz); horrez gain, jasoko duten zirkulazioaren dimentsioari erantzuteko modukoak direla justifikatu beharko da.

b) "Kudeaketa" planoak maila grafikoan jasoko ditu plan berezi zehatz honetarako kudeaketa eta antolamendu jarraibideen azterketako xehetasunak (ustiapen epeak eta eremua osatzen duten zenbait alde lehengoratzea, eta gauzatzeko lehentasun ordena).

Beste alde batetik, eta kudeaketa planoan egindako zonifikazioari dagokionez, bi zehaztugabetasun ageri dira; zuzendu egin beharko dira xehetasun hauek jasoko ditu(zt) en plano(et) an:

- "Alde lehengoratuari" dagokion azaleraren zati batek jardueraren eragina jasoko du; izan ere, eremu hori zeharkatu behar da "ustiapen aldera" iristeko.

- Akats bat antzeman da Balizko Arkeologia Guneko azalerak Eremu Higigarri gisa identifikatzean (Kerriano herrixka eta Aizpilleta herrixka); eremuan partzialki daude, eta indarrean dauden arau subsidiarioen oharren arabera, "balizko arkeologia babesguneak. Interes historiko eta kulturala daukaten ondasun higiezinak" dira.

c) "Lehengoratze" planoetan eta "une honetako drainatze" planoan jasotako informazio guztia ez da idatzitako atalean jaso; izan ere, aipatutako planoen xehetasun grafikoak ez dira idatzitako atalean garatu. Horrenbestez, plan berezi honetako dokumentazio idatziak plano horietan jasotako informazio guztia bildu beharko luke. Gainera, "une honetako drainatzeak" planoan, oharretan ez da planoan ageri den grafia eta trama osoa identifikatu.

"Lehengoratze" planoei dagokienez, esan behar da soilik harrobiak izan ditzakeen Z.8 aldea handitzeari dagozkion azalerak azaldu eta deskribatu direla, hain zuzen ere, 130/2011 Foru Agindu bitartez behin betiko onartutako arau subsidiarioen aldaketa puntualak eragindakoak. Hortaz, eremuko gainerako lehengoratze baldintzak ere jaso behar dira.

C. Arloko kalteei dagokienez, eta plan bereziak definitutako eremuan Balizko Arkeologia Guneko zati batzuk (Kerriano herrixka eta Aizpilleta herrixka) daudela aintzat hartuta, Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak txostena ematea beharrezkotzat jo da.

D. Dokumentu teknikoaren euskarri informatikoari dagokionez, dokumentazio osoa txosten honetan adierazitako baldintzekin berriz ere aurkeztu beharko da editatu ezin diren fitxategietan (\*.pdf luzapena) eta edita daitezkeen fitxategietan (hain zuzen ere, planoak \*.dwg luzapeneko fitxategietan –dagokion arkazdun \*.ctb luzapeneko fitxategia ere aurketuz- edo \*.shape luzapeneko fitxategietan aurkeztu beharko dira, eta testua \*.doc luzapeneko fitxategi batean).

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz,

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Laminoria Aurrealdeko lurzoru urbanizaezinaren Antolamendu Plan Bereziaren espedientea behin betiko onartuko da, Arraia-Maeztu udalerrian, foru agindu honen hirugarren oinarrian azaldutako alderdiak betetzeko baldintzapean.

Bigarrena. Aipatutako baldintzak ez dira funtsezkoak. Beraz, haiek zuzendutakoan espedientea foru aldundiari igorriko zaio, berriro jendaurrean jarri gabe, betearazi beharrekoa dela adieraz dezan, izapideak egin daitezen eta argitara dadin.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratuko da.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du; beronen aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu daiteke zuzen-zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi edo argitaratzen den egunaren hurrengotik aurrera.

Gasteiz, 2017ko urtarrilaren 30a

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua*  
**JOSEAN GALERA CARRILLO**